

## IKERGAIK ETA ADIERAZPENAK ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALEAN

Kepa Fernandez de Larrinoa  
Utriusque Vasconiae, 127 or.  
Donostia, 2009

*Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean* liburua ireki eta aurkituko duzuna zera izango da, mapa bat. Zeren eta hori baita, azken batean, Fernandez de Larrinoa irakasleak bere liburuarekin eskaintzen diguna: mapa bat, antropologia deritzon diziplina akademikoak besarkatzen duen eremu zabalarena.

Baliteke metafora oso ederra ez izatea, baina nahiko eraginkorra ematen du liburuaren egitura eta edukia ulertarazteko. Izan ere, nola adierazten diren lerro gorri lodi batez lurralde baten mugak mapetan, hala zehazten dira liburu honen zazpi kapituluetakoa lehenengoan ikergai antropologikoaren mugak; nola osa daitezkeen, batetik, hiri eta probintzien izenez zipriztinduriko mapa politikoak eta, bestetik, ibai eta mendiz zeharkaturiko geografia fisikoak, hala bereizten dira hemen ere antropologiaren dimentsio teorikoa eta praktikoa.

Bestalde, diziplinak harturiko norabide teoriko nahiz praktiko ezberdinen anabasan orientatzeko beharrezko diren puntu kardinalak seinalatzen dira. Eta, noski, hiri eta herrien gisan izendaturik, mapan barreiatutako autore erreferentzialen helbideak ere emanak daude; zenbait kasutan, gainera, euren lanei buruzko iruzkin labur eta guzti, hirietako eraikin eta monumentu garrantzitsuenak iruditxo bidez nabarmentzen direnean bezala-edo.



1. irudia. *Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean* argitalpenaren azala.

Aurreratu legez, beraz, lehenengo kapituluaren mugak zehazkitzen dira. Zer ikertzen du antropologiak? Hori da abiapuntuko galdera. Izango da hitzetik hortzera antropologiaren ikergaia kultura dela erantzungo duenik, edota gizakia dela, edota giza komunitateen ohitura eta usadioak direla. Erantzun zehatzagoa da, ordea, nahiz eta paradoxikoki nahiko orokorra izan, antropologia *bestearen* azterketa dela esatea. Horrenbestez, muga egiten duen lerro gorria *bestearen* eta *gure* artekoa da, ikergaiaren eta ikertzailearen artekoa. Hartara, *gu* delakoa, berez, ikertzaileen komunitateak ordezkatzeko du eta denborarik gehienean ezaugarri jakin batzuei erantzun izan die, alegia, eskuarki Mendebaldeko gizakion eskolatu zuriz osatua izateari. *Bestea*, berriz, aldakorragoa izan da. Hasiera batean, ikergaia Mendebaldearentzat exotikoak ziren lurraldeetako giza komunitateak ziren, estaturik

gabeko, primitibo, azefalo esan izan zaien horiek. Denboran aurrera egin ahala, ordea, ituak ugarituz joan dira eta horrela, azkenerako, aztergai bihurtu dira bai ikertzailearen ikuspuntutik bere komunitatean bertan nolabaiteko *bestelakotasuna* ager dezaketen gizataldeak bai *bestelakotasuna* edo *alteritatea* nozioa bera ere.

Ondoko lau kapituluetan, mapa politiko bat eta mapa fisiko bat aurkituko ditugu. Hau da, antropologiaren alderdi teorikoa, batetik, eta esparruko lanarekin loturik dagoen alderdi praktikoa, bestetik.

Alderdi praktikoa Etnografia dei diezaiokegu eta bi adiera har ditzake, halaber: lehenengoa, datu-bilketarako landa-lanari erreferentzia egiten diona, eta, bigarrena, landa-lana burutu ondoren, erkidego zientifikoari esperientzia horren berri ematen dion txosten edo liburuarekin loturik dagoena.

Esparru-lanari dagokionez oinarriko ardura, noski, datu etnografiko esanguratsuak nola identifikatu eta jaso izan da. Hala, XIX. mendearen bigarren erdian argitara emandako *Notes and queries on anthropology* aitzindaria ezker, hamaikatxo dira gaurko eguna bitarte errendimendua handitze aldera esparruko lanerako inguruan idatziriko eskuliburu orokor zein espezializatuak.

Idatzi etnografikoaren xedea, ostera, azterturiko *bestea* komunitate akademikoari ahalik eta modurik objektiboenean aurkeztea da. Eta hori, arrazoi bat baino gehiagorengatik, ez da egiteko erraza. Izan ere, besteren artean, kontuan hartu beharrekoa izango da, esate baterako, azterturiko giza komunitatearen eta azterketaren berri jakin nahiko duen komunitate zientifikoaren artean eman beharreko menta-

litate-jauzia. Bestalde, etnografoa bera, subjektua izaki, nekez izango da bere lekukotasuna inpartzialki helarazteko gai. Eta testu etnografikoari dago-kionez, estatikoa izaki, fosildurik geratuko da, bere garaian deskribatu nahi izan zuen gizataldea eraldatuz joan den bitartean.

Adibide horiek horrela, harritzekoa ere ez da objektibotasunaren ortzi-mugara iritsi nahi horrek estilo eta eskola, ahalegin ezberdinak ernarazi izana. Fernandez de Larrinoak hiru etnografia-estiloren soslaia bereiziko digu: klasi-koarena, modernoarena eta postmodernoarena. Lehenengoa 1860tik 1970era bitartean nagusitu den estiloa da, beste antropologo ospetsu askoren artean, F. Boas, A.R. Radcliffe-Brown edota R. Benedictek erabilitakoa. Estilo moderno, hirurogeiko hamarkadatik aurrera agertu zena, «konfidentzia etnografiko» dei ditzakegun monografiak segitzen dutena da eta, adibidez, C.Lévi-Straussek, B. Malinowskik edota M. Meadek egin zituztenen gisan, esperientzia pertsonalen kontaketa oinarritzen da. Hirugarrena, postmoderno, idazketa etnografikoaren gaineko gogoeta kritikotik eratorritako estiloa da, aldiz. Lerro honi idazlan etnografikoa bera interesatzen zaio, hots, kultur testuaren idiosinkrasia, eta hala, semiotika eta dekonstrukzioaren teoriak baliatuz, kultur ezagutzak modu ahalik eta legitimoenean adierazteko beharrezko diren literatur baliabi-deak aztertzen dira.

Liburuaren zatirik behinena —2., 3. eta 4. kapituluak— antropologiaren geografia teorikoa marrazteari eskaintzen zaizkio. Geografia hau egokiro neurtzeko aproposa izan litekeelakoan nago aintzakotzat hartzea nola, gizarte-zientzietan landutako teorien deskribapena egiteko orduan, bikote antagoni-

koa osatzen duten izendapenak azaldu ohi diren. Bat baino gehiago dira bikoteok eta elkar hartuta bezala ageri dira. Nolabait esateko, batak bestea derrigor sustatzen edo inplikatzeko duen ideia nahasgarria igortzen dute. Hala, tipikoki, eta kontuak kontu, *gizarte* nozioa eboluzionismo deritzon ideologiarekin harremanetik agertu ohi zaigu, alde batetik, eta bi hauek, aldi berean, unibertsalismoaren kontzeptioarekin, funtzionalismoarekin, mekanizismoarekin eta sinkroniarekin. Aitzitik, eta hurrenez hurren, *kultura* nozioa erlatibismoa esaten zaion ideologiarekin lotzeko joera dago eta bi hauek, berriz, partikularismoaren kontzeptioarekin, gatazkaren teoriarekin, hermeneutikarekin eta diakroniarekin.

Batak bestea dakarrenaren ideia hau, berez, nahasgarria eta okerra da. Izan ere, esate baterako, asmoz unibertsalista eta ikuskeraz erlatibista zertan ez izanik ez baitago. Baina uste zuzena izan ez arren, oso da indartsua eta kontuan hartu beharrekoa. Hori dela-eta, antropologia zeharkatzen duten norabide teoriko zaparradaren erdian ez galtzeko, Fernandez de Larrinoa bere iparrorratzean lau puntu kardinal adierazteaz arduratzen da. Puntuok, unibertsalismoa eta erlatibismoa dira, alde batetik, eta diakronia eta sinkronia bestetik.

Erreferentzia hauek gogoan, antropologiaren joeren jatorriaren atzetik joanez gero, funtsezko bi sorburu identifika ditzakegula adierazten zaigu. Bata da Britainia Handiko antropologia eboluzionista eta unibertsalista, kategoria analitiko nagusizat *gizarte* izan duena. Eta bestea, berriz, Estatu Batuetako antropologia erlatibista, jite partikularistakoa, eta giltzarritzat *kultura* izan duena. Dela hobetu beharrez, dela errotiko ukoak bultzatuta, dela

testuinguru ideologiko berriek eragindako berrirakurketen ondorioz, hasierako ideia hauetatik abiatu egun arte eredu teoriko berriak ardakaduraz adarkadura multiplikatu nola erne diren ohartzea interesgarria da oso.

Britainia Handia sorburu izandakoari antropologia soziala deitu izan zaio, bistan da, azterketarako garaian kontzeptu gakoa *gizarte* izan duelako. Eboluzionismoa puri-purian ziren sasoi kolonialean itxuraturiko diziplina izan denez, munduan zehar sakabanaturiko gizataldeetan antzematen den aniztasunari ikuspegi horretatik egin izan dio so. Eboluzionismoaren arabera bizitzaren bilakaera estadios estadiokoa da eta, hitz gutxitan esateko, sinplekeriatik konplexutasunera egiten du. Hala, antropologia sozialaren helburua gizateriaren historia unibertsaleko etapa bakoitza ordezkatzeko luketen gizarteak identifikatu eta sailkatzea izan da, eta hortik anbizio unibertsalista. Historiaren amaiera eta gailurra Mendebaldeko gizarte industrialia izan dela dudarik ez eta kontua, kolonietako *gizarte primitiboak* aztertuz, aurreko estadiok bilatzea izan da. Gizarteaz azterketa eta karakterizaziorako hautaturiko aldagaia ahaidetasuna izan da, hain zuzen ere, erakunde honetan zetzala uste izan baita gizarte estatuen eta gizarte primitiboaren arteko haustura puntua. Ildo honetan, beraz, ahaidetasunari eta ondorengotza tipoei buruzko teoriaren lanketa izango du denbora luzez ezaugarri Radcliffe-Brown edota E-E Pritchard bezalako erraldoiek ordezkaturiko hastapenetako antropologia britainiarrak.

Gero, 60ko hamarkadan sartzearrekin batera, ahaidetasunean oinarrituriko sailkapenak errebisio-premia larria zutela ikusiko da. Itxuraturiko eredu teorikoen eta errealtate etnografikoa-

ren arteko adostasun falta ez da izango horretarako arrazoirik txikiena. Baina, Fernandez de Larrinoak aipatzen dizkigunen artean, errebisio kritiko honetatik eratorritako eredu berrien artean, beharbada, azpimarragarrienak antropologia britainiarraren sinkronismoa gainditu nahi izatetik eratorritakoak dira. Izan ere, gizarte-aldaketa adierazteko ezintasuna, horixe baitzen hastapenetako antropologia britainiarraren ahulgune handienetako bat. Hutsune horri emandako erantzuntzat har litezke bai, batetik, Manchesterreko Unibertsitateko Mac Gluckman eta Victor Turnerren lan funtzionalistak bai, bestetik, marxismoaren materialismo historikotik edan duten proposamen sinkronikoak.

Botere-harremanak eta desberdintasun soziopolitikoak interpretatzeko aukera ematen duen materialismo historikotik abiatutako azterketa hauetan, bereziki, bi aldi mota bereiz litezke. Hala, hasiera batean kultura egitura ekonomikoaren epifeno gisa ulertuko den bezala, gerora, kulturari ekonomia-erlazioen erlazio- eta interpretazio-eremuaren izaera aitortuko zaio. Modu nahiko arrakastatsuan aitortu ere, gainera. Horren erakusgarri ditugu Antonio Gramsci filosofoaren *hegemonia* kontzeptua eta 80ko hamarkadatik aurrera Birmingham Center for Contemporary Cultural Studies zentroko kideek egindako kontzeptu horren lanketak gaur egun duen hedapen eta sona.

Estatu Batuak sorburu izandakoari antropologia kulturala esan lekiok, azterketarako kontzeptu gakoak *kultura* izan du-eta. Britainia Handiko antropologia ideologia eboluzionistak baldintzatu zuen gisa berean, Ipar Amerikakoa, lurpeko ibai batek bezala, idealismo alemaniarrek zeharkatzen duela esan dezakegu. Harritzekoa ere

ez da, baldin eta antropologia kulturalaren aitapontekotzat har litekeen F. Boas jauna Alemaniatik Estatu Batuetara emigraturiko jakintsua dugula kontuan hartuz gero. Idealismo alemaniarri zor dizkio antropologia kulturalak, besteak beste, bai bere erlatibismoa bai hizkuntzari eman izan dion garrantzia bai kulturaren kontzeptzio klase espiritual, abstraktu eta orohartzaille moduko bat, *volksgeist*-aren ideiarekin nahiko aise erlazioatu daitekeena.

Boasen ikasleen eskutik hiru ezauzgarri hauetako bakoitzak bizi izan duen garapenaren emaitzei jarraitzea biziki jakingarria da.

Batetik, kulturari barne-egitura, psikologismoa, historizitatea, ingurunearekiko lotura eta giza komunitatearekiko eskusibotasuna atxiki izan dion ikuspegi orohartzailetik, Fernandez de Larrinoak hiru teoria mota eratorri zirela adierazten digu: bat, nortasunaren jarraibideen teoria, M. Mead, R. Benedict, A. Kardiner eta enparauek psikologiaren kontzeptu propioekin erlazioan taxuturikoa; bi, A. Kroeberrena, kultura lege propioen arabera funtzionatzen duen esfera superorganiko autonomo eta abstraktua dela zioena; eta, hirugarrena, ingurumenaren eta kulturaren arteko harremanen azterketan oinarriturik, lege unibertsalak bilatzen zituzten J.H Stewardena edota L. Whitena.

Kulturaren funtsezko ezaugarria hizkuntza dela nabarmentzen duen iritziaren ondorioz, berriz, kultur fenomenoaren azterketa gero eta gehiago komunikazioarekin, hizkuntzalari-tzarekin, etnoseantikarekin, soziolinguistikarekin nahiz literaturarekin paretatzen joango dela kausituko dugu. Ideia honen argipean loratuko den literatura ugaria eta aberatsa da eta, besteren artean, izandako eraginagatik

aipatzekoa da kultura testu bat dela eta antropologoaren zeregina testua irakurri eta interpretatzea dela dioen Clifford Geertz-en proposamen ospetsua.

Hirugarrenik, Ipar Amerikako antropologiari erlatibismoak eman dion tor-nua dugu. Arestian adierazi bezala, eboluzionismoak gizataldeen aniztasuna simple eta kaskarretik konplexu eta bikainerako eskala baten baitan esplikatzen zuen. Aitzitik, ikuspegi erlatibistaren arabera, aniztasun hori bera mailaketarik gabe ulertzen da: gizatalde bakoitzak *bere eboluzio propioa* izan du eta bata bestearekin termino horietan zertan konparaturik ez dago. Natiboaren ikuspegia zein den ezagutzea da benetako lorpen antropologikoa. Alde horretatik, gizarte-zientzietan indarrean izan den arrazionaltasun eta positibismo mendebaldarra kritikatzeko aukeraren atea zabal-tzeaz gain, globalizaturiko gaur egun-go mundu honetan, erlatibismoak zen-troen aztergai huts izatera kondena-turiko periferien hitza balioesten ere erakutsi du.

Liburuko azken bi kapituluak dira zatirik mamitsuena, ziur asko. Baina guk hemen, labur beharrez, doiki baino ez ditugu ukituko. *Kultura* eta *gizartea* kontzeptuez gogoeta egiteko eta teoria antropologikoa egun zertan den iruz-kintzeko erabiltzen dira. Fernandez de Larrinoak aukeraturiko irudiaz baliatuz esan liteke txanpon beraren bi aldeak direla *kultura* eta *gizartea* kategoria analitikoak; hots, fenomeno beraren azterketarako aukeran izan ohi ditugun

bi hurbilketa modu posible. Horrela, antropologia soziokulturala dei diezaio-kegunaren erronka nagusia alderdi sozialaz teorizatu dutenen ondarea eta alderdi kulturalaren ikerketatik ikasita-koa elkarri nola uztartu asmatzea ger-tatu da. Horrela, bada, arrasto honi ja-rraiki, seigarren kapituluan, eta bes-teak beste, gizartearen kultur azterketan F. Saussurekin ernetzen hasitako semiotikak eta estrukturalismoak izan duen eragina nabarmentzen zaigu ba-tetik eta, era berean, kulturaren gizarte azterketan K. Marx, E. Durkheim eta M. Weberrek ezarritako oinarriak go-gorarazten zaizkigu. Eta zazpigarren kapitulura iristearekin erronka honi erantzuten saiatu direnak asko eta oso onak direla ulertuko dugu. Alabaina, bereziki, soziologo, antropologo eta historialarien artean onarpen zabala erdietsi duten hiru kategoria analitiko berri nabarmentzen dizkigu Fernandez de Larrinoak. Hain zuzen ere, M. Sahlinsek teorizaturiko *eraldaketa*, P. Bordieuk plazaraturiko *habitusa*, eta A. Giddensek proposaturiko *egituraketa*.

Mapa bat bezalakoa, beraz. *Iker-gaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean* liburu zimela da eta gihartsua —bibliografi erreferentziak kenduz gero, apenas dituen ehun orrialde—. Aski sintetikoa denez, ira-kurtzen jakin behar da. Bideak eta tokiak adierazten baititu, antropolo-giaren erresuman barneratzeko gonbi-dapena duzu.

Hibai Iztueta

